

Altzako I. Bertso Astea

Datorren astelehenean, hilak 21, Altzako I. Bertso Astea hasiko da, Txalaka elkarteak eta kultur etxeak antolatuta. Aurten Txirritaren heriotzaren 65. urtemuga dela eta, Bertso Asteak Txirrita izango du ardatz.

Sara Soria 943-357037

Auzoak ez du ahaztu Txirrita bertsolaria (Hernani 1860- Altza 1936). Bere lehen urteak Errenterian igaro zituen arren, Txirrita baserrian hain zuzen, urte luzez Altzan bizi izan zen bertsolaria (lehenengo Arriagazar deritzon etxean, eta gero-gazteluene baserrian).

Txirrita oso ezaguna zen

Hilaren 26an Peñagarikano eta Sorozabal bertsolariak ariko dira

auzotarren eta bertsozaleen artean, bihotz oneko gizona baitzen eta, jakina, umore fineko bertsolaria. Hori guztia dela eta, auzoan bada bere izena duen kalea.

Jarduera ugari

Aurten Txirritaren heriotzaren 65. urtemuga beteko da. Urtemugaren haritik, Txalaka elkarteak eta Casares kultur etxeak bertsolaria ekarriko dute gogora Altzako I. Bertso Astean. Sei egunen buruan hainbat jarduera egingo dira.

Batetik, Txirritari buruzko erakusketa egongo da ikusgai hilaren 21tik 26ra (21tik-23ra Casaresen eta 24tik 26ra Txalaka elkartearen). Gainera, hilaren 21etik 25era "Txirrita" marrazki bizidunen bideo emanaldiak antolatu dira Casaresen. Bestetik, hilaren 23an, Peio Esnalek "Txirrita eta Altza banaezinak" izenburupeko hitzaldia eskainiko du kultur etxean (19.30). Hori gutxi baltitz, hilaren 25ean "Bertsolari elkartearen bilkura, 2001" bi-

Aste Internazionalista aurrera

Txalaka elkarteak antolatutako Aste Internazionalistak aurrera darrai. Hilaren 18an, Pasaiaiko kaiko kubatar langile batzuek hitzaldia eskainiko dute Txalaka elkartearen 19.30etan. Ondoren, kubatar jai giroa izango da bertan. Astea igandean amaituko da Kolonbiari buruz eskainiko diren ikusentzunezkoekin.



deoa ikusteko aukera izango da Txalaka elkartearen (19.00). Hilaren 26an amaituko da Altzako I. Bertso Astea, bertso afariarekin. Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabal ariko dira bertan. Txartelak salgai daude dagoeneko Txalaka elkartearen.

Hira eta Senen doinu gazteak

Hilaren 19an, Auzo Etxean, Hira eta Sen taldeen kontzertua egingo da, 22.00etan.

Gitarra kontzertua

Hilaren 17an, "Agrupación guitarrística donostiarra" izeneko taldeak kontzertua eskainiko du Casares kultur etxean, 17.30etan.

%100 Cabareta

Hilaren 24an, Santa Barbara tabernan, Psicosis Gonzalez taldeak "100% Cabaret" izeneko antzezlanaren taularatuko du, 22.00etan.



Txirrita urte luzez bizi izan zen Altzan, Arriagazar etxean lehendabizi, eta Gazteluene baserrian ondoren.